

Nik, AITOR SARASOLA SALABERRIA, Hernaniko Udaleko Kontu-hartzaileak, honako hau ZIURTATZEN DUT:

BAT. Urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak, 11.3.b artikuluan ezarritakoan oinarrituta, Hernaniko Udalak bere baliabide propioa den Garbitania Zero Zabor SM-ren bitartez, ondoko zerbitzuak modu zuzenean ematen dituela:

- Hiri hondakin eta asimilagarrien bilketa derrigorrezko zerbitzu publikoa, udalerririo osoan, 2010 maiatzak 4 eta 2017 ekainak 20ko Osoko Bilkuraren erabakia.
- Kale-garbiketako derrigorrezko zerbitzu publikoa, 2018ko martxoaren 7ko Osoko Bilkuraren erabakia.

BI. Hernaniko Udalak, abenduaren 19an eginiko Osoko Bilkuran onartu zuela 2020 urterako Aurrekontu Orokorraren espedientea. Espediente hori osatzen duten dokumentuen artean, Garbitania SI-ren Jarduera Plan Orokorra (aurrerantzean JPO) dago, eta bertan jasotzen dira 2020 urterako aurreikusitako lanak. Hori horrela, JPO delakoan jasotako aurrekontu estimazioak udal aurrekontuan txertatzen dira:

Atez ateko bilketa zerbitzua: herrigunea eta poligonoak:	1.993.851,84 €
Kale-garbiketa zerbitzua:	1.262.606,07 €

Idatziz gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau egin dut, Alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin, Hernanin bi mila eta hogeiko urriaren 29an.

Alkatearen oniritzia

Sin. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra



XABIER LERTXUNDI
ASTEASUINZARRA

Bitarteko Kontu-hartzailea

Sin. Aitor Sarasola Salaberria

AITOR SARASOLA
SALABERRIA

Firmado digitalmente por AITOR
SARASOLA SALABERRIA
Fecha: 2020.10.29 09:28:01 +01'00'

JARDUKETA PLAN OROKORRA – 2020

HITZAURREA

Hitzarmen honetako adierazpenetan jasotzen den gisan, 2010eko maiatzaren 7an GARBITANIA sozietatea eratu zen, beste batzuen artean Hernaniko Udalaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa. Hasierako helburu soziala *“Hiri hondakinen eta asimilagarrien oinarritzko zerbitzuak zuzenean ematea da, hauen gaikako bilketa, kudeaketa, aprobetxamendua eta tratamendua, gai honen inguruan dauden legezko xedapenak eta Europakoak betez.”* bazen ere, 2018an, Hernaniko Udalak kale-garbiketako derrigorrezko zerbitzu publikoa emateko modua aldatzeko hartu zuen erabakiaren kontestuaren baitan, objektu soziala *“Bide publiko, lorategi eta kale garbiketako zerbitzuak ematea”* helburuarekin handitu zen.

Horiek horrela, egun Garbitaniak Hernaniko Udalari arestian aipaturiko bi zerbitzu horiek kudeatzen dizkio. GARBITANIA, Hernaniko Udaleko bitartekoa denez, izaera juridiko pribatuko merkataritzako erakundea den arren, bere kudeaketari aplikatu behar dizkio tokiko araubidearen legearen arabera aplikagarri zaizkion zuzenbide publikoko zenbait atal, hala nola: kontratazio publikoa, langileak hautatzeko araudia, aurrekontuen erregimen ekonomikoa eta hitzarmen hau sinatzeko unean edo etorkizunean legeak zehazten duen beste edozein. Bete behar horiei erantzun nahian, eta hitzarmen honetako bigarren baldintzan jasotzen denari erantzunez, esku artean 2020rako Jarduketa Plan Orokorra duzu. Bertan, Garbitaniak Hernaniko udalerriri eskaintzen dizkion zerbitzuen xehetasun tekniko eta ekonomikoak jasotzen dira, hauek guztiak Hernaniko udalaren irizpideen baitan eta bere mendean burutu direlarik. Zerbitzu Publiko zein Ingurumen saileko teknikoek zuzendaritzaren azpian eta udalerraren lehentasunen arabera. Beraz, hau guztia kontuan hartuta Garbitaniaren helburu nagusia indarrean dagoen araudia beteaz, batetik hondakinen bilketa eta kudeaketa eta bestetik kale garbiketa modu eraginkor eta efiziente batean burutzea litzateke. Hondakinen bilketan birziklagarriak diren baliabideak ahalik eta gehien gaika bilduaz eta kale garbiketari dagokionez herriaren garbiketa maila egoki bat lortzeaz gain herritarrak, kalean isuritako hondakinen sailkapen egokian heziaz.

Arestian aipatu bezala, zerbitzua bi zatitan banatu dezakegu: alde batetik atez ateko gaikako bilketa eta bestetik kale garbiketa.

Aipatu helburu nagusia lortzeko xede zehatz batzuk ezarri ditugu. Lehenengo eta behin gure jardueran gardentasuna sendotze bidean, erabiltzaileen eskura jar ditzakegun zerbitzu berrien definizioa burutuko dugu, ondoren udalaren nahia bada, indarrean jartzeko pausoak eman ahal ditzagun. Xede hori burutzeko, behin web orriaren abiatze egintzak amaitu ostean, zerbitzu berrien definiziorako Garbitaniaren helburuko publiko ezberdinek izan ditzaketan beharren definizioa burutuko da. Definizio horietatik abiatuta zerbitzu berrien definizio eta proposamenak egingo direlarik.

Hernanin eskaintzen dugun kale garbiketaren zerbitzuari dagokionez, 2019an eginiko apustuari heldu eta bide berean zerbitzua egonkortzea lortu nahi dugu. Besteen artean, peoi balioanitzen postua definitu eta lan poltsa eratu ostean, asteburu eta lan ekipaok



indartzeaz gain, Garbitaniak, orain artean indarrean izan diren prozedurak gainbegiratuko ditu eta behar diren egokitzapenak egingo ditu.

Atez ateko hondakinen bilketari dagokionez, zero zabor ereduaren inplementazioarekin jarraituko dugu. Gure planetan gizakiok sortzen ditugun hondakinen arazoari irtenbidea emateko hondakin gutxiago sortu, hondakinak berrerabili eta birziklatzeko bilketa-sistema eraginkorrak ezarri behar dira eta hori da gure eguneroko lanaren helburua. Horretarako, atez ateko hondakinen bilketa selektiboan eta frakzioen tratamendu egokian oinarritzen gara. Datorren urterako gure xedea arlo honetan, behin transferentzia plantetara egokitu ondoren errefusaren gutxitzean eragitea izango da, horretarako herritarren zein komertzio eta zerbitzuaren erabiltzaileen heziketa oinarria izango delarik.

Espero dugu prestatu dugun aurrekontu hau herritarrentzat baliagarri izatea eta gure eguneroko lana modu onenean egiteko baliagarri izatea.

Urteko plangintzak helburu nagusi hauek ditu:

- Transparentzia eta kontratuen legeari egokitu ondoren zerbitzuaren erabiltzailearen esku jarri ditzakegun zerbitzu berrien definizioa burutzea.
- Kale garbiketa ekipoak egonkortuta prozeduren gainbegiraketa eta egokitzapenak burutzea.
- Zerbitzuaren kalitatean eta jasotako frakzioen kalitatean hobekuntzak erdiesteko sistema eraikitzen jarraitzea. Transferentzia plantetara egokitu eta material berrerabilgarrien merkatuan ematen ari diren aldaketetara moldatzea. Eta erabiltzaileen heziketa lanak burutzea.

Horiek horrela proposatzen den plangintzaren ardatz nagusiak honakoak dira:

1. Lizitazioak.
2. Sortzez besteko softwarea.
3. Webgunearen eraldaketa eta zerbitzuen moldaketa.
4. Heziketa.
5. Zerbitzu berriei dagokionez ikuspegi estrategikoaren lanketa.

Atez ateko bilketa zerbitzua: Herrigunea eta poligonoak

1.- 2020rako ekintza plana

2020rako Hernanin, poligonoen bilketa, herriguneko zein komertzioetako bilketa eta auto eta auzo konposta zerbitzuetarako ezarritako helburuak erdiesteko aurrera eramango den ekintza plana honako hau da:

Atez ateko zerbitzua

Txuria	Bilketa zerbitzuan zuzenean eragiten dute, eta ondorioz, aurrekontuan ere bai
Hori argia	Egiteko lanak dira, baina bilketa zerbitzuan ez dute zuzenean eragingo 2020.urtean.
Laranja	Ez dute bilketan eragingo zuzenean, baina bai aurrekontuan.

HERNANI

ZERBITZUA	ERLAZIOAK	NOIZ LANDU	ARDURADUNA	TALDEA		
Sagardo garaiko bilketa estrak	Igandeetan ostalaritzari ontzi arinen bilketa burutzea (otsaila hasieratik maiatzak 10 bitarte. 15 igandeetan)	2021ean zerbitzu hau kentzeko lanketa burutu aurten		koordinatzailea		
	Sagardotegi garaian goizeko ekipoaren ordutegia honakoa izango da 6:30-14:30 (urtarrilak 20tik maiatzak 8 bitarte)			koordinatzailea		
	Errefusa bilketa	Igandeetako errefusa 15ero egiteko lanketa osatu: 2021ean indarrean sar dezakegu				
Errefusa bilketa	Fokuen jarraipena	2019ko lanketarekin jarraitu baina kale garbiketako arduraduna jarraipen taldean sartuta		tekniko-hezitzaile-udala-kale garbiketa		
	Erreka bazterretako hondakinen bilketa	2019ko esperientziatik ondorioak atera eta aplikatu: beira batzeko iglua jarri berriro		udala-hezitzailea		
	Eraikin publikoak	Igerilekuen hondakinen bilketa. Bermeen eskaria egin behar dela koordinatu			hezitzailea	
		Areto publikoetako hondakinen bilketa			hezitzailea	
		Ikastetxeetako hondakinen bilketa			hezitzailea	

Poligonoen bilketa	Enpresei formazio eta aholkularitza			hezitzailea	
	Fakturazioa eta sortutakoaren arabera ordainketa mekanizatuaren ezarpena	Softwarean sortutako informeak erabiltzea	Urtarrila-otsaila-martxoa-apirila	Hezitzailea-teknikoa	
	Fakturen erreklamazioa			Udala-hezitzailea	
Komertzioetako errefusa	2019an Udalak hezitzailea kontratatuta hasi duen lanketarekin jarraitu maiatzak 31 bitarte. Ekainetik aurrera egitekoak zehaztugabe..	Sortzen den errefusaren jarraipena: kantitatea gutxitzea helburu. Heziketa oinarri.		Udala-Teknikoa	
AP1eko gasolindegia	Autopistako bi gasolindegia biltzeari utzi urtarrilaren 1etik aurrera	Hemendik aurreztu denbora Oialumeko gunea kendu eta atez ateko bilketako froga pilotua egiteko baliatu (kostuak parekatuz)		Udala-Koordinatzaileak-teknikoa	
San Joanetako bilketa	San Joanetako zerbitzua: orokorrean eta ostalaritzari ematen zaiona	Kale garbiketarekin koordinazioa		Koordinatzaileak (KG barne)	
Festa eta ekitaldiak	Banatzeko ontzien jarraipena eta beharren definizioa	Banatu eta jasotakoaren jarraipen zehatza egin. Feed-back-a eginda urte osoko ekitaldiak artxibatu		Hezitzailea	
Hondakin arriskutsuak zerbitzua		Bilketa hilean behin burutuko dugu		udala	
		Kudeatzaile autorizatu batekin kudeatzea aztertu		Udala-Teknikaria	
Auto konposta	681 etxebizitzari aholkularitza (eskariaren arabera) Ikastaroen antolaketa itxaron zerrendaren arabera	2021ean erabiltzaile zaharrei bisitak egiten hasteko antolatu		hezitzailea	
Auzo konposta	Hedapena	Ez da hedapenik aurreikusten		hezitzailea-udala	
	Mantenua: 49 guneren jarraipena (990 etxebizitza)			hezitzailea	
	Jarraipen plana egokitu egoera berrira	Trazabilitatea eta banaketa arauak inplementatu.		hezitzailea	

	Eusko Jaurlaritzaren arauaren inguruko txostena oinarri hartuta lanketa burutu	2021erako pausoak zehaztu		Hezitzailea-teknikoa	
	Azpiegituren txukuntzea	Akarregiko gunea hormigoiez txukuntzea. Galbahea pasatu ez duen konpostari irteera bilatzea		Udala-hezitzailea	
	Arduraduna talde teknikoak txertatzea	Dekretura egokitzeko egin beharreko pausoak gidatuz			
Larrialdi Guneak	Ontzien garbiketa	Maiztasuna kontrolatu		Koordinatzailea	
Puskatutako kirtenak berritzea	Zintzilikatzekoaren lurrean dauden kuboetako kirten puskatuak berritu	Urtean 2 tan		Koordinatzaileak	
Pertxen garbiketa	2019an garbitu direnak kontuan izanda, premia gehien duten zonaldeetatik jarraitu	Kale garbiketako zerbitzuarekin koordinatuaz		Koordinatzaileak	

2.- 2020ko aurrekontua.

Arestian aipaturiko lan-karga hori aurrera eramateko aurrekontua bilduko dugu atal honetan. Lehenik aurrekontu orokorra jasoko da, ondoren zerbitzuen baitan xehatuko dugularik.

Gastu eta diru-sarreraren atalean honakoa aurreikusten da:

KONTZEPTUA. Gastuak	Aurreikuspena. Guztira 2020-12-31
Giza baliabideak	1.514.808,30 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	387.414,51 €
Errentamendu eta kanonak	136.522,84 €
Konponketa eta kontserbazioa	64.588,48 €
Gasolia	85.195,82 €
Kamioien aseguruak	5.477,88 €
Garraioak	56.241,64 €
Ontziak	19.340,51 €
Epiak	13.192,94 €
Garbiketa	6.854,40 €
Amortizazio zuzenak	18.723,73 €
Gastu orokorrak (*)	72.905,30 €
Guztira	1.993.851,84 €

(*) Profesional independenteen zerbitzuak, gainontzeko aseguruak, banku zerbitzuak, publizitatea, bestelako zerbitzuak, bulego materiala, telefona,

bestelako tributuak, formazioa, amortizazio ez zuzenak

Bilketa zerbitzuaren xehaketa

Aurreko atalean jasotako aurrekontuaren xehaketa honakoa litzateke:

a) Herriko bilketa

	Hernani
Pertsonal Zuzena	1.145.731,20 €
Amortizazioak	15.045,86 €
Gasolina	69.828,26 €
Seguruak (ibilgailuak)	4.831,89 €
Alokairuak	98.631,52 €
mantenua	60.196,50 €
prebentzioa/ epien erosketa	11.639,99 €
garraioa	27.845,14 €
garbiketa	6.854,40 €
Pertsonal ez Zuzena	71.514,19 €
Gastu orokorrak	57.389,15 €
Guztira	1.569.508,09 €

Ontzien erosketa	12.461,98 €
Gastu orokorrak	472,97 €
Guztira	12.934,94 €

b) Errefusa gutxitzeko heziketa lanak.

	Atez ateko errefusa hezitzailea
Pertsonal zuzena	45.970,10 €
Pertsonal ez zuzena	2.869,36 €
Gastu orokorrak	1.853,59 €
Guztira	50.693,05 €

c) Poligonoen bilketa eta heziketa lanak

Bilketa	Poligonoak
Pertsonal Zuzena	128.840,27 €
Amortizazioak	3.677,88 €

Gasolina	15.367,56 €
Seguruak (ibilgailuak)	646,00 €
Alokairuak	37.891,32 €
mantenua	4.391,99 €
prebentzioa/ epien erosketa	1.552,95 €
garraioa	28.396,50 €
Ontziak/softwareak	4.378,53 €
garbiketa	
Pertsonal ez Zuzena	8.041,95 €
Gastu orokorrak	8.850,02 €
Guztira	242.034,96 €

Heziketa	Poligonoak
Pertsonal zuzena	52.703,60 €
Pertsonal ez zuzena	3.289,65 €
Gastu orokorrak	2.125,10 €
Guztira	58.118,35 €

d) Auzo eta auto konposta

	Hernani
Pertsonal zuzena	52.566,87 €
Pertsonal ez zuzena	3.281,12 €
Ontziak auzo konposta	2.500,00 €
Gastu orokorrak	2.214,47 €
Guztira	60.562,45 €

Giza baliabideak

Atal honetan datorren urteko egitekoei eta etorkizunean etor daitezkeen lanei aurre egiteko giza baliabideak biltzen dira, zuzenak eta ez zuzenak. Zehazki Hernaniko aurrekontuaren %75,98 osatzen du atal honek eta honela banatzen da:

1) Atez ateko bilketari dagozkion giza baliabide zuzenak

POSTUA	TALDE A	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURU A	Urteko soldata gordina (oinarriak)
--------	------------	--------------------------	------------------------------	-------------	---

Ingurumen teknikariak	A16	Laboral finkoa	-	0,64	41.363,87 €
Koordinatzaileak	C2-13	Laboral finkoa	-	1,28	35.677,63 €
		Opor ordezkapena		0,14	
Hezitzaileak	C1-11	Laboral finkoa		2	32.387,82 €
		Aldizkakoak	2020-12-31	1.16	
Biltzaileak goizez	9	Laboral finkoa	-	17	29.074,37 €
Biltzaileak gauez		Aldizkakoak	Ordezkoak Oporrak eta zerbitzu zehatzak	4.46	35.966,28 €
Absentismoa					%4

2) Atez ateko bilketari dagozkion giza baliabide ez zuzenak

Ondorengo taulan, Garbitania osoari dagokion giza baliabideen egitura ez zuzena jasotzen da.

POSTUA	TALDE A	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURU A	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Gerentea	A	Laboral finkoa	-	1	48.093,06 €
Administraria	C1-11	Laboral finkoa	-	1	32.390,87 €
Administraria	Bekaduna	%60	2020-06-05	1	7.749,00 €
Zerbitzu juridikoak	A18	Obra amaiera	2020-12-31	1	42.799,82 €

Egiturazko kostu honen esleipena honela burutzen da:

- Txosten honen laugarren puntuan jasotzen den gisan, Garbitaniaren aurrekontu osoa kontutan hartu, giza baliabideen %71,59a zuzeneko giza baliabideak dira eta %4,47a ez zuzenak.
- Hortaz, egitura honen arabera giza baliabide zuzenaren % 6,24a izango litzateke giza baliabide ez zuzena: $4,47/71,59=6,24$.
- %6,24 hori, giza baliabide ez zuzenen kostua estaltzera bideratzen da.
- Beraz, atez ateko zuzeneko plantillaren kostuari %6.24a gehituz gero giza baliabideei dagokien guztizko kostua lortuko genuke.



Ibilgetu ez materialak. Zuzeneko amortizazioak

Ez dago zuzeneko amortizaziorik.

Ibilgetu materiala. Zuzeneko amortizazioak

Atal honek honakoak jasotzen ditu:

kamioi berria GEESINK (44)	27.104,00 €
Piaggioa Porter (40)	3.174,94 €
UCA ASD/1, LECTOR 70, SOFTWARE, LECTOR DE HUELLA (21) Fitxaketa sistema	388,42 €
Orgatila (26)	1.315,88 €
2020an atez ateko inbertsioari dagokien amortizazioa	1.452,00 €

Jarraian zerrendatutako bilketa zerbitzua burutzeko erabiltzen diren ondasunek honako jabegoa dute:

KONTZEPTUA	MATRIKULA	TITULARTASUNA
Jaso eta konpaktatzeko kaxa ECOMAC-2NB	6266 GWX	Garbitaniaren jabegoa
NISSAN CABSTAR KAMIOIA	5988 GPR	Garbitaniaren jabegoa
Iveco kamioia	1119 CDV	Garbitaniaren jabegoa
GEESINK kamioia	8950 JNY	Garbitaniaren jabegoa
Altzari bilketa egiteko ibilgailua	7896 BSM	Hernaniko udalaren jabegoa
Piaggioa Porter	0547 JMM	Garbitaniaren jabegoa
Mehinosa orgatila		Garbitaniaren jabegoa
Lau irakurgailu		3 Usurbilgo udalaren jabegoa 1 Garbitaniaren jabegoa

Kanpo zerbitzuak

Atal honetako gastu guztien %84,16 zuzeneko ustiapen kostuek osatzen dute eta %15,84 gastu orokorrek.



Egiturazko gastuak: Gastu orokor eta giza baliabide ez zuzenak

Garbitaniaren egitura osoa kontuan izanik honela definitzen dira gastu orokorrei zein giza baliabide ez zuzenei dagozkien ehunekoak:

		%
Giza baliabide zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,72	71,59 %
Giza baliabide ez zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,04	4.47%

0.062417950 /%6.24	giza baliabide zuzenarekiko giza baliabide ez zuzena
0,037952802/%3,80	Gastu orokorrak beste gastuekiko atez ate

3.- 2020rako inbertsio plana eta finantzatzea

Honakoak burutzea aurreikusten da:

Inbertsio plana		
	Zerbitzuetarako baliabideak: irakurgailu bi	7.260,00 € aurreikuspena
	OROTARA	7.260,00 € aurreikuspena

(*) Finantzatzea, baliabide propioen bidez egitea aurreikusten da

Kale garbiketa zerbitzua

1.- 2020rako ekintza plana

Kale garbiketari dagokionez, hitzaurrean azaldutako helburuak erdiesteko honako ekintzak burutzea proposatzen da:

Txuria	Zerbitzuan zuzenean eragiten dute, eta ondorioz, aurrekontuan ere bai
Hori argia	Egiteko lanak dira, baina zerbitzuan ez dute zuzenean eragingo 2019.urtean.
Laranja	Ez dute eragingo zuzenean zerbitzuan, baina bai aurrekontuan.

ZERBITZUA	ERLAZIOAK	ARDURADUNA	TALDEA
Opor guztien zein bajen ordezkapena burutuko da			Koordinatzailea
Asteburuetao errefortzuekin hasi			
Inbertsioak	Hidrogarbigailua		
	Haizagailua	3	
	Sasiak garbitzeko makina	2	
	Bestelako kale garbiketarako tresneria orokorra		
	Akarregiko altzariak	Bilera gelako mahai eta aulkiak	
	Azpiegituraren egokitzapena	Bainera, garbiketa zentroa eta gasolina depositua egokitzapenak	Proiektua eta tramitazioa
Puntu beltzak: zaborrontzi inguruak eta kontrol gabeko puntuak	Jarraipen teknikorako talde iraunkorra sortu. 2019an abiatu kanpainarekin jarraitu.		Teknikoa-udala-koordinatzaile-hezitzailea
Zalantzarriak diren puntuen garbiketarako protokoloa	Eremua publikoa edo pribatua dela zalantzarria denean, bildu beharreko hondakinen arrisku maila zalantzarria denean..		Udala-koordinatzailea
Kimaketa garaian, lorategiak txukuntzerakoan e.a. parte hartzen duten agenteen arteko			Goroldi-Garbitania-udala



koordinazioaren hobekuntza					
-------------------------------	--	--	--	--	--

2.- Kale garbiketarako zerbitzuaren deskribapena

Ohiko zerbitzua

Burututako lanak honako hauek dira:

1. Erabilera publikoa duten eremuak garbitzea, kale garbiketarako makinekin: Errepideak, espaloiak, kaleak, plazak, pasa-bideak.
2. Kale garbiketa egitea, kamioi-zisternarekin.
3. Kale garbiketa egitea, haizagailuarekin.
4. Kale garbiketa zerbitzuan bildutako hondakinak jasotzea eta sailkatzea.
5. Berdeguneetatik hondakinak jasotzea eta sailkatzea
6. Esekitoki, edukiontzi eta zakarrontzi inguruak garbitzea.
7. Zakarrontziak hustutzea eta poltsak aldatzea.
8. Hustubideak, kanaletak eta saretak garbitzea.
9. Zuhaitz-txorokoak garbitzea.
10. Asteroko azoka eta aste barruan saltzeko jartzen diren postuen eremua garbitzea.
11. Ekitaldiak, jaiak edo merkatu txikiak egin ondoren eremua garbitzea.
12. Udal obren ondorioz sortutako zikinak garbitzea.
13. Kartelak eta pintadak kentzea.
14. Larrialdietan (elurteak, izozteak, uholdeak, haizeteak, istripuak) laguntza ematea: elurra kendu, gatza bota.
15. Presio handiko ekipoarekin garbiketa-lanak egitea.
16. Belar-sastrakak garbitzea.
17. Jaietako lan bereziak egitea.
18. Araudia betez Garbitaniaren ardura diren hildako animaliak kentzea.
19. Laneko ibilgailuak eta tresneria, garbitzea, mantentzea eta zaintzea.
20. Herriaren garbiketa-egoeraren ardura hartzea, egunero agindutako eremua/ibilbidea garbitzeaz arduratzea.

Zerbitzu bereziak

Txotx garaia:

Txotx garaian urtero zerbitzu berezi bat burutzen da kale garbiketako arloan Hernaniko udalerrian. Zerbitzu honen ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

Epealdia: urtariletik maiatzera (epealdia udaleko ekipo teknikoarekin zehaztu ohi da).

Lan jardunaldia: larunbata, igande eta jai egunetan burutzen da.

Lan ekipoa: Gidari plusa jasotzen duen peoi bat eta lan berezietarako pizgarria duten bi peoi.



Hosto bilketa garaia:

Udazkenean, urtero zerbitzu berezi bat burutzen da kale garbiketako arloan Hernaniko udalerrian eroritako hosto kopurua biltzeko. Zerbitzu honen ezaugarri nagusienak honako hauek dira:

Epealdia: urria eta abendua bitarte (biak barne)

Lan jardunaldia: asteazken, ostegun, ostiral, larunbat eta igandea.

Lan ekipoa: Lan berezietarako pizgarria duten bi peoi.

Jardunaldiaren ordu kopurua: asteazkenetik ostiralera 7,25, larunbatetan 6,5 igande eta jai egunetan 6.

Zerbitzua hobetze aldera 2019an abian jarritakoak

Zerbitzua hobetze aldera, kale garbiketako zerbitzuan atxikitako pertsonalaren opor guztiak estaltzeaz gain, larunbat eta igandetan bi peoi kontratatzea aurreikusten da. Errefortzu horren bidez lan hori eginez gero, aste barruko plantillak asteburuetan atzeratutako garbiketarik ez luke izango eta bere beharra hobe burutzeko aukera izango luke. Ezaugarri nagusiak honakoak lirateke:

Epealdia: urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitarte (52 asteburu).

Jardunaldi kopurua: larunbat eta igandea.

Lan ekipoa: Bi peoi.

Kontratazio hau lan poltsaren baitan egingo litzateke.

3.- Kale garbiketarako zerbitzuari atxikitako pertsonalaren deskribapena

Ohiko zerbitzuak

Ohiko zerbitzuak burutzeko azpikontratetik eratorritako ekipoa hartzen du pisu handiena. Honako hauek hain zuzen ere:

langilea	Kategoria profesionala Garbitarian
****2195K	Peoia
****7871C	Peoia
****8957C	Peoia
****2755B	Peoia
****1975P	Peoia
****8957P	Peoia
****7754L	Peoi-gidaria

****5877C	Peoia
****9265W	Peoia
****1439Y	Peoia
****6878V	Peoia
****9705X	Peoia
****6174H	Peoia
****4658X	Peoi-gidaria
****3287E	Langileburua
****9622K	Peoia
****8106A	Peoia
****3181P	Peoia

Ekipo hauen antolaketa honakoa hau izango da:

- Astelehenetan: 13 pertsona
- Asteartetan: 13 pertsona
- Asteazkenetan: 13 pertsona
- Ostegunetan: 12 pertsona
- Ostiraletan: 13 pertsona
- Larunbatetan: 5/6 pertsona
- Igandetan: 5/6 pertsona
- Jai egunetan 5 pertsona

Asteburuko errefortzua aldiz, lan poltsatik kontratatuak izango dira. Honela larunbata eta igandeko ekipoak 7/8 pertsonakoak izatera pasako ginateke.

Zerbitzu bereziak

Txotx eta Hosto erorketa garaian, asteburu horretan dagoen ekipoaz gain hitzarmen honetako 2. puntuan deskribatzen diren errefortzuak sartzen dira.

4.- Kale garbiketarako zerbitzuari atxekitako baliabide materialak

Baliabide materialei dagokionez, honako hauek dira aurreko kontratatik jasotako baliabideen zerrenda eta egoera:

IBILGAILU MOTA	MATRIKULA	TITULARTASUNA
Inspekziarako ibilgailua Pick Up	0584HBR	Hernaniko udalaren jabegoa
Elurra kentzekoa Pick up (hortza)		Hernaniko udalaren jabegoa
Ibilgailu arina Porter antzekoa	7414-GDY	Hernaniko udalaren jabegoa

Ibilgailu arina Porter antzekoa	7482GYD	Hernaniko udalaren jabegoa
Bucher City Cat 2020 barredora	E0867BFT	Hernaniko udalaren jabegoa
Baldeadora Zisterna	8923HBH	Hernaniko udalaren jabegoa
Hidroareadun eta hidrogarbigailudun Furgoneta	8304GYX	Hernaniko udalaren jabegoa
Kuboak garraitzeko karroak (5 unitate)		Hernaniko udalaren jabegoa
Haizagailuak (5)		AKTIBO(4)- Hernaniko udalaren jabegoa
BUCHER CITY CAT 5000 XL	E-2224-BGP	Garbitaniaren jabegoa
Haizagailua (5)		Garbitaniaren jabegoa
Sasiak garbitzeko makina (1)		Garbitaniaren jabegoa
Akarregiko edukiontzia		Garbitaniaren jabegoa

Amaitzeko, aipatzekoa da egun atez ateko zerbitzuak eta kale garbiketarako piaggio porter bat partekatzen dutela zerbitzua hobetzeko.

Beraz, horiek guztiek osatzen dute kale garbiketako bitartekoen zerrenda.

5.- 2020rako aurrekontu

Hona hemen 2020rako aurrekontua:

	2020
Giza baliabideak	975.617,21 €
Amortizazioak	23.030,22 €
Zuzeneko ustiapen kostuak	207.795,37 €
Gasolina	38.377,80 €
Kamioien aseguruak	10.457,34 €
Alokairua	57.363,46 €
Mantenua	72.031,18 €
Prebentzioa	14.280,00 €
Garraioa	5.440,16 €
Poltsak	9.845,43 €



Gastu orokorrak	56.163,27 €
Guztira	1.262.606,07 €

Aurrekontuaren atal nagusiak honako hauek dira:

Giza baliabideak

Atal honetan datorren urteko egitekoei eta etorkizunean etor daitezkeen lanei aurre egiteko giza baliabideak biltzen dira. Zehazki aurrekontuaren %77,27a osatzen du atal honek eta honela banatzen da.

1) Kale garbiketari dagozkion giza baliabide zuzenak

POSTUA	TALDE A	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURUA	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Zerbitzu burua	A16	Laboral finkoa	-	1	41.363,87 €
Arduraduna		Laboral finkoa		1	35.886,73 €
Peoi gidaria %100		Laboral finkoa Ordezkoak		2 0.16	28.581,57 €
Peoi gidaria %15		Laboral finkoa Ordezkoak		1 0.0125	28.581,57 €
Peoia %100		Laboral finkoa Ordezkoak		8 0,66	27.413,86 €
Peoia %41,14		Laboral finkoa Ordezkoak		4 0,1371333 4	27.413,86 €
Peoia %99,41		Laboral finkoa Ordezkoak		2 0,1439166 67	27.413,86 €
Peoia %44,33		Laboral finkoa Ordezkoak		1 0,04	27.413,86 €
Peoia %58,41		Laboral finkoa Ordezkoak		1 0,04	27.413,86 €
Absentismoa					%2



2) Kale garbiketari dagozkion giza baliabide ez zuzenak

Jarraian jasotzen den taulan, Garbitania osoari dagokion giza baliabideen egitura ez zuzena biltzen da.

POSTUA	TALDE A	Kontratuaren iraupena	Kontratuaren amaiera data	KOPURU A	Urteko soldata gordina (oinarriak)
Gerentea	A	Laboral finkoa	-	1	48.093,06 €
Administraria	C1-11	Laboral finkoa	-	1	32.390,87 €
Administraria	Bekaduna	%60	2020-06-05	1	7.749,00 €
Zerbitzu juridikoak	A18	Obra amaiera	2020-12-31	1	42.799,82 €

Egiturazko kostu horien esleipena honela burutzen da:

- Txosten honen bosgarren puntuan jasotzen den gisan, Garbitaniaren egitura osoa kontutan hartu, giza baliabideen %71,59a zuzeneko giza baliabideak dira eta %4,47a ez zuzenak.
- Hortaz, egitura honen arabera giza baliabide zuzenaren % 6,24a izango litzateke giza baliabide ez zuzena: $4.47/71,59=6,24$.
- %6,24 hori, giza baliabide ez zuzenen kostua estaltzera bideratzen da.
- Beraz, kale garbiketako zuzeneko plantillaren kostuari %6.24a gehituz gero giza baliabideei dagokien guztizko kostua lortuko genuke.

Amortizazioak

Atal honek honakoak jasotzen ditu:



KONTZEPTUA	GUZTIRA
Excabaciones Bonatxo (53)	2.562,54 €
Uralde Iturgintza (54)	557,54 €
Armairuak KG (48)	422,77 €
Akarregiko altzariak (56)	106,49 €
Akarregiko altzariak (57)	56,91 €
Ordenagailua KG (47)	488,07 €
Akarregi hardware eta software	417,56 €
Haizagailua(60)	29,90 €
Haizagailua(60)	29,90 €
Haizagailua(64)	29,90 €
Haizagailua(61)	56,62 €
Akarregiko Lanak (mahai sendoa+3 zerrailak) (59)	87,73 €
Akarregiko Lanak (Iñigo Egur lanak) (59)	117,37 €
Akarregiko elektrizitatea KG (63)	2.057,85 €
Haizagailua Br 500Berri F18 (66)	50,92 €
Akarregiko edukiontzia (69)	347,57 €
Barredora E2224	3.630,00 €
2020rako aurreikuspena KG	11.980,58 €

Kanpo zerbitzuak

Atal honetako gastu guztien %78,72a zuzeneko ustiapen kostuek osatzen dute eta %21,28a gastu orokorrek.

Egiturazko gastuak: Gastu orokor eta giza baliabide ez zuzena

Garbitaniaren egitura osoa kontutan izanik honela definitzen dira gastu orokorrei zein giza baliabide ez zuzenei dagozkien portzentajeak:

		%
Giza baliabide zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,72	71,59 %
Giza baliabide ez zuzena Garbitaniaren aurrekontu osoarekiko	0,04	4.47%

0.062417950 /%6.24	giza baliabide zuzenarekiko giza baliabide ez zuzena
0,046552784/%4,66	Gastu orokorrek beste gastuekiko kale garbiketa

6.- 2020rako inbertsio plana eta finantzaketa

2020rako aurreikusten diren inbertsioen nondik norakoak honako hauek dira:

Inbertsio plana		
	Akarregiko pabilioian egokitzapenak:	968,00 €
	Altzariak	968,00 €
	Zerbitzuetarako baliabideak	60.273,81€
	3 haizagailu	1.008,01 €
	2 sasiak garbitzeko makinak	1.185,80 €
	Hidro-garbigailua + berau eramateko ibilgailua	58.080,00 €
	OROTARA	61.241,81 €

(*) Finantzatzea, baliabide propioen bidez egitea aurreikusten da